

**ABUZTUAREN 31ko
oroitzapen ekitaldiak**

2026


**Actos conmemorativos
del 31 de AGOSTO**





Donostiak 1813 gogoratzen du

Donostia recuerda 1813



Abuztuaren 31n, urtero, Donostiak bere historiako gertakari tragikoenetako bat gogoratzen du. 1813ko abuztuaren 31n, Independentzia Gerraren testuinguruan, tropa aliatuek hiria hartu zuten; sute ikaragarri batek Donostia suntsitu zuen eta hiria ia erabat desagertu zen.

Donostia suntsitu hartatik Trinitate kale zaharraren zati bat baino ez zen zutik geratu, Santa Maria eta San Bizente artean Alde Zaharra zeharkatzen zuen kalea. Gaur egun, egun hartako oroimenez, Abuztuaren 31 kalea du izena.

Cada 31 de agosto Donostia recuerda uno de los episodios más trágicos de su historia. El 31 de agosto de 1813, en el contexto de la Guerra de la Independencia, las tropas aliadas asaltaron la ciudad, que sufrió un incendio devastador y una destrucción prácticamente total.

De aquella Donostia arrasada solo quedó en pie una parte de la antigua calle de la Trinidad, la vía que atravesaba la Parte Vieja entre Santa María y San Vicente y que hoy conocemos, precisamente en recuerdo de aquella jornada, como calle 31 de Agosto.

Bi mende baino gehiago igaro diren arren, gertakari haiek leku berezia izaten jarraitzen dute donostiarren memorian. Abuztuaren 31n, hiriak egun hura bizi eta pairatu zuten pertsonak gogoratzen ditu, gertakariak izan ziren toki berberetako batzuetan egiten den oroitzapenaren bidez.

Erakunde ekitaldiek eta oroimen ekitaldiek, abuztuaren 31 hartako pasarte batzuk jarraitzeko aukera ematen duten birsortze historikoek, kanpaien hotsak, argien itzaltzeak, kandekek eta musikak 1813ko memoriaren ibilbidea marrazten dute egunean zehar.

Eguna zuzien argitan egiten den Paseo Zeremonialarekin amaitzen da, Abuztuaren 31 kaletik Santa Mariako atariraino. Han, hitzak eta musikak, gordintasun osoz, garai hartako Donostiako emakumeek eta gizonek pairatutakoa gogorarazten dute, eta bi mende baino gehiago igaro ondoren hiriaren memoriari sakon lotuta jarraitzen duen oroitzapenari amaiera ematen diote.

Más de dos siglos después, aquellos acontecimientos continúan ocupando un lugar singular en la memoria de los y las donostiarros. Cada 31 de agosto, la ciudad recuerda a quienes vivieron y padecieron aquella jornada a través de una conmemoración que transcurre por algunos de los mismos lugares en los que sucedieron los hechos.

Los actos institucionales y de recuerdo, las recreaciones históricas que permiten seguir algunos de los episodios de aquel 31 de agosto, el sonido de las campanas, el apagado de las luces, las velas y la música van trazando a lo largo del día un recorrido por la memoria de 1813.

La jornada culmina con el Paseo Ceremonial a la luz de las antorchas por la calle 31 de Agosto hasta el atrio de Santa María. Allí, la palabra y la música recuerdan, en toda su crudeza, lo que sufrieron las mujeres y los hombres de aquel San Sebastián y ponen fin a una conmemoración que, más de dos siglos después, permanece profundamente ligada a la memoria de la ciudad.

Abuztuak 31 :: egitarua

31 de Agosto :: programa

11:30

Hildakoen oroimenezko meza nagusia
San Bizente eliza

13:00

Lore eskaintza
Itsas Atean · Portaletas

17:00

Patiñako elkarteen hurbilketa
Koruko Andre Mariaren plaza → Zuloaga plaza

17:00

Kanoikada
Kursaal ↔ Begiratokiko Bateria

18:00

Save the Children erakundeari aitortza
Plaka baten entrega
Zuloaga plaza

Jarraian

Danborrada eta oroitzapenezko desfilea
Irteera Zuloaga plazatik

19:00ak aldera

Biktimen oroimenezko isilunea
Boulevardeko kioskoa

Jarraian, setioaren birsortze historikoa Alde Zaharreko hainbat gunetan.

21:00

Gazteluaren erasoaren eta Donostiaren
errekuntzaren antzezpena
Zuloaga plaza

21:30

Hiriaren sutearen simulazioa
Apaizen Pasealekua eta Begiratokiko Bateria

21:30

Kanpai hotsa, argiteria itzaltzea eta kandelak
piztea
Abuztuaren 31 kalea

21:30

Paseo Zeremoniala zuzien argitan
San Bizente → Kañoietan → Trinitate plaza →
Santa Maria

11:30

Misa solemne en recuerdo de las personas
fallecidas
Iglesia de San Vicente

13:00

Ofrenda floral
Puerta de Mar · Portaletas

17:00

Acercamiento de las sociedades de la Patiña
Plaza Virgen del Coro → Plaza Zuloaga

17:00

Cañoneo
Kursaal ↔ Batería del Mirador

18:00

Reconocimiento a Save the Children
Entrega de una placa
Plaza Zuloaga

A continuación

Tamborrada y desfile conmemorativo
Salida desde la plaza Zuloaga

19:00 aprox.

Minuto de silencio en recuerdo de las víctimas
Kiosco del Boulevard

A continuación, recreación histórica del asedio
por diferentes espacios de la Parte Vieja.

21:00

Representación del asalto al castillo y la quema
de San Sebastián
Plaza Zuloaga

21:30

Simulación del incendio de la ciudad
Paseo de los Curas y Batería del Mirador

21:30

Repique de campanas, apagado del alumbrado
y encendido de velas
Calle 31 de Agosto

21:30

Paseo Ceremonial a la luz de las antorchas
San Vicente → Kañoietan → Plaza de la
Trinidad → Santa María

Oroimenerako eguna

Una jornada para el recuerdo

Oroitzapena 11:30ean hasiko da San Bizente elizan, 1813ko gertakarietan hildako pertsonen oroimenezko meza nagusiarekin.

13:00etan, udal agintariek ohiko lore eskaintza egingo dute Itsas Atean, Portaletasen.

Arratsaldean ekingo zaie berriro ekitaldiei. 17:00etan, Patiñako elkarteak Koruko Andre Mariaren plazatik Zuloaga plazara hurbilduko dira. Ordu berean hasiko da Kursaalaren eta Begiratokiko Bateriaren arteko kanoikada; ondoren, indar aliatuak Kursaaletik Zuloagara hurbilduko dira.



18:00etan, Donostia 31 Kultur Taldeak Save the Children erakundeari aitortza egingo dio. Ondoren, Danborrada eta oroitzapenezko desfilea egingo dira; Zuloaga plazatik abiatuko dira eta Boulevardeko biktimen oroimenezko unera arte lagunduko dute ibilbidea.

La conmemoración comenzará a las 11:30 horas en la iglesia de San Vicente, donde tendrá lugar la misa solemne en recuerdo de las personas fallecidas durante los acontecimientos de 1813.

A las 13:00 horas, las autoridades municipales realizarán la tradicional ofrenda floral en la Puerta de Mar, en Portaletas.

A las 17:00 horas, las sociedades de la Patiña iniciarán su acercamiento desde la plaza Virgen del Coro hasta la plaza Zuloaga. A esa misma hora comenzará el cañoneo entre el Kursaal y la Batería del Mirador, tras el que las fuerzas aliadas se acercarán desde el Kursaal hasta Zuloaga.

A las 18:00 horas, Donostia 31 Kultur Taldea realizará un reconocimiento a Save the Children. A continuación se desarrollarán la Tamborrada y el desfile conmemorativo, que partirán desde la plaza Zuloaga y acompañarán el recorrido hasta el momento de recuerdo a las víctimas en el Boulevard.

19:00ak aldera, segizioa Boulevardeko kioskora iritsiko da, eta 1813ko biktimen oroimenezko isilunea egingo da.

Isilunea amaitutakoan, setioaren birsortze historikoa hasiko da, eta Alde Zaharreko hainbat gunetan jarraituko du Zuloaga plazara iritsi arte.

21:00etan, gazteluaren eraso eta Donostiaren errekontza antzeztuko dira; ordu erdi geroago, hiriaren sutearen simulazioa egingo da Apaizen Pasealekuan eta Begiratokiko Baterian.

Hainbat elizatako kanpai hotsak, argien itzaltzeak eta Abuztuaren 31 kalean kandelak pizteak emango diote hasiera oroitzapenaren azken zatiari.

Hacia las 19:00 horas, la comitiva llegará al kiosco del Boulevard, donde se guardará un minuto de silencio en recuerdo de las víctimas de 1813.

Finalizado el minuto de silencio comenzará la recreación histórica del asedio, que continuará por diferentes espacios de la Parte Vieja hasta alcanzar la plaza Zuloaga.

A las 21:00 horas se escenificará el asalto al castillo y la quema de San Sebastián y, media hora después, se simulará el incendio de la ciudad en el Paseo de los Curas y la Batería del Mirador.

El repique de campanas en distintas iglesias, el apagado de las luces y el encendido de las velas en la calle 31 de Agosto marcarán el comienzo de la parte final de la conmemoración.



Historia ezagutzea ere memoria eraikitzea da

La memoria también se construye conociendo la historia

Oroitzapena egun batzuk lehenago hasten da. Erakusketa batek eta hiru hitzaldiko ziklo batek urte haietako Donostian sakontzeko eta 1813ko gertakarien alderdi ezezagunagoetara hurbiltzeko aukera emango dute.

La conmemoración comienza varios días antes. Una exposición y un ciclo de tres conferencias permiten profundizar en la Donostia de aquellos años y acercarse a aspectos menos conocidos de los acontecimientos de 1813.

Erakusketa

ABUZTUAK **24-29** AGOSTO

Exposición

Abuztuaren 24tik 29ra, 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, hiriari eta 1813ko gertakariei buruzko erakusketa bisitatu ahal izango da.

Erakusketak Donostiak sutearen aurretik zuen egiturari buruzko azalpen panelak, garaiko jatorrizko gutunak eta dokumentazioa, 1813 aurreko eta ondorengo hiriari buruzko bideoak, orain arte erakutsi gabeko plano zaharrak eta 1813ko gerraren inguruan egindako partitura bat bilduko ditu.

Del 24 al 29 de agosto, de 12:00 a 14:00 y de 16:00 a 19:00 horas, se podrá visitar una exposición dedicada a la ciudad y a los acontecimientos de 1813.

La muestra reunirá paneles explicativos sobre la configuración de Donostia antes del incendio, cartas y documentación originales de la época, vídeos sobre la ciudad antes y después de 1813, antiguos planos hasta ahora no expuestos y una partitura realizada en torno a la guerra de 1813.

Historiari hiru begirada

Udal Liburutegiko Kriptak, San Jeronimo kaletik sartuta, abuztuaren 27an, 28an eta 29an, 19:00etan, hiru hitzaldi hartuko ditu. Hitzaldiek XVIII. mendearen amaierako eta XIX. mendearen hasierako Donostiara eta 1813ko abuztuaren 31rekin lotutako gertakarietara hainbat ikuspegitatik hurbiltzeko aukera emango dute.

Tres miradas a la historia

La Cripta de la Biblioteca Municipal, con entrada por la calle San Jerónimo, acogerá los días 27, 28 y 29 de agosto, a las 19:00 horas, tres conferencias que permitirán acercarse desde diferentes perspectivas a la Donostia de finales del siglo XVIII y comienzos del XIX y a los acontecimientos relacionados con el 31 de agosto de 1813.

ABUZTUAK **27** AGOSTO

Humanitatea supean.

Ankerkeriak eta erruki ekintzak 1813ko abuztuaren 31ko erasoaren ondoren

Iñigo Alberdi Matxain, industria ingeniaria TECNUNen (Nafarroako Unibertsitatea).

Hitzaldiak garaiko gerraren legeetan sakonduko du eta Donostia hartu ondoren biztanleria zibilaren aurka erabilitako indarkeria aztertuko du. Indarkeria pasarteekin batera, gainbehera etiko kolektiboari aurre egin zioten ontasun, babes eta banakako heroismo ekintzak ere berreskuratuko ditu.

Humanidad bajo el fuego.

Atrocidades y actos de compasión tras el asalto del 31 de agosto de 1813

Iñigo Alberdi Matxain, ingeniero industrial por TECNUN (Universidad de Navarra).

La ponencia profundizará en las leyes de la guerra de la época y analizará la violencia ejercida contra la población civil tras la toma de San Sebastián. Junto a los episodios de violencia, recuperará también actos de bondad, protección y heroísmo individual que desafiaron el colapso ético colectivo.

ABUZTUAK **28** AGOSTO

1813ko sutea saihestu zezakeen jeneralaren historia ezezaguna

Carlos Rilova Jericó, Historia Garaikidean doktorea UPV/EHU.

Hitzaldiak Gabriel de Mendizábal e Iraeta jeneralaren figura izango du ardatz. Donostiako setiora iritsi zen lehena izan zen, baina gero Bidasoko frontera bidali zuten, eta ezin izan zuen gauzatu 1813ko abuztuaren 31ko suntsipena saihestu zezakeen hiria hartzeko proiektua.

CARLOS RILOVA JERICÓRI AITORTZA

Hitzaldia amaitzean, Donostia 31 Kultur Taldeak Carlos Rilova Jericóren ikerketa lana aitortuko du, Iñigo Arístegui artistaren 3181813 eskultura emanez.

Historia desconocida del general que pudo evitar el incendio de 1813

Carlos Rilova Jericó, doctor en Historia Contemporánea por la UPV/EHU.

La conferencia girará en torno a la figura del general Gabriel de Mendizábal e Iraeta, el primero en llegar al asedio de San Sebastián pero posteriormente destinado al frente del Bidasoa, sin poder materializar un proyecto de asalto a la ciudad que hubiera podido evitar la destrucción del 31 de agosto de 1813.

RECONOCIMIENTO A CARLOS RILOVA JERICÓ

Al término de la conferencia, Donostia 31 Kultur Taldea reconocerá la labor investigadora de Carlos Rilova Jericó con la entrega de la escultura 3181813, obra del artista Iñigo Arístegui.

ABUZTUAK **29** AGOSTO

Kortsarioen negozioa Donostian, 1797-1813

José Javier Pi Chevrot, arkitekturan doktorea Bartzelonako Unibertsitatean.

Hitzaldiak azalduko du Donostiako merkataritza elitea nola inplikatu zen britainiar eta portugaldar itsas trafikoaren aurkako kortsario jardueran eta, ondoren, britainiarrek eta portugaldarrek suntsitutako hiria berreraikitzen nola parte hartu zuen. Era berean, abuztuaren 31ko egun latza La Balandra elkarte abertzalearen bidez nola oroitu zen erakutsiko du.

El negocio del corso en San Sebastián 1797-1813

José Javier Pi Chevrot, doctor arquitecto por la Universidad de Barcelona.

La conferencia abordará cómo la élite comerciante de San Sebastián se implicó en la actividad del corso contra el tráfico naval británico y portugués y cómo participó posteriormente en la reconstrucción de la ciudad devastada por británicos y portugueses. Asimismo, mostrará cómo se conmemoró el luctuoso 31 de agosto a través de la sociedad patriótica La Balandra.



Save the Children

**Save the Children erakundeari aitortza
Reconocimiento a Save the Children**

Abuztuaren 31n, 18:00etan, Zuloaga plazan, Donostia 31 Kultur Taldeak Save the Children erakundearen lana aitortuko du plaka bat emanez, Danborrada eta oroitzapenezko desfilea hasi aurretik.

Save the Children aukeratzeak lotura zuzena du gerrak biztanleria zibilarengan dituen ondorioak gogoratzen dituen egunaren esanahiarekin. Erakundeak gatazka armatuen eraginpean dauden haurrak babesteko, Nazioarteko Zuzenbide Humanarioa bete dadin defendatzeko eta hezkuntza nahiz ingurune seguruak indarkeriari aurre egiteko tresna gisa sustatzeko lan egiten du.

Aitortzak, horrela, gaur egun ere gerren ondorioak pairatzen dituztenengan jartzen du begirada, bereziki haurengan, gatazka ororen aurrean kolektibo zaurgarrienetako bat baitira.

A las 18:00 horas del 31 de agosto, en la plaza Zuloaga, Donostia 31 Kultur Taldea reconocerá la labor de Save the Children con la entrega de una placa, antes del inicio de la Tamborrada y del desfile conmemorativo.

La elección de Save the Children enlaza con el significado de una jornada que recuerda las consecuencias de la guerra sobre la población civil. La organización trabaja para proteger a la infancia afectada por los conflictos armados, defender el cumplimiento del Derecho Internacional Humanitario y promover la educación y la creación de entornos seguros como herramientas frente a la violencia.

El reconocimiento pone así la mirada en quienes continúan sufriendo hoy las consecuencias de las guerras y, especialmente, en los niños y niñas, uno de los colectivos más vulnerables ante cualquier conflicto.

21:30ean, hainbat elizatako kanpai hotsak Abuztuaren 31 kaleko argiteria itzaltzea eta kandelak piztea lagunduko ditu.

Kalea argituko duten kandelak auzotarren artean banatuko dira abuztuaren 28an, ostiral arratsaldean, eta 29an, larunbat goizean, balkoi eta leihoetan jarri eta hilaren 31ko gauean, argiteria itzaltzearekin batera, pizteko. Auzotarrak oroitzapeneko unerik berezi eta hunkigarrienetako honekin bat egitera animatzen ditugu, beren kandlekin Abuztuaren 31 kalea argitzen lagunduz.

Kalea kandelen argiz argituta, zuzien argitan egingo den Paseo Zeremoniala hasiko da.

Parte hartzaileak hasieran **San Bizente eliza**ren barruan egongo dira. 21:28an, kanpai hotsekin batera, kanpora aterako dira eta, 21:30ean, Donostiako Antzinako Ereserkia interpretatuz hasiko da zeremonia. Easo Abesbatzak abestuko du, Aiert Beobide dantzaria, Kañoietako zuzi eramaileak eta Udal Txistulari Banda lagun dituela.



Argiak itzaltzen direnean

Kañoietan :: Santa Zezilia Abesbatza

Aldapeko, J. Guridi

Sorgin Dantza, E. Mocoroa

Emanaldia amaitutakoan, Santa Zezilia Abesbatza segizioarekin batuko da.

Trinitate plaza :: Gaztelupe otxotea

Ilunabarra

Bitxintxo

Interpretazioaren ondoren, Gaztelupe Otxotea ere segizioarekin batuko da.

Segizioak Santa Maria Basilikako atariraino jarraituko du, eta han elkartuko dira parte hartzaile guztiak.



Bi mende baino gehiago igaro ondoren, kanpaiek, kandlek, musikak eta hitzek 1813ko abuztuaren 31 hartan gertatutakoa eta hura bizi eta pairatu zuten pertsonak gogorazten dituzte berriro.



A las 21:30 horas, el repique de campanas de distintas iglesias acompañará el apagado del alumbrado y el encendido de las velas en la calle 31 de Agosto.

Las velas que iluminarán la calle se repartirán entre el vecindario durante la tarde del viernes 28 y la mañana del sábado 29, para su colocación en balcones y ventanas y su encendido la noche del día 31, coincidiendo con el apagado del alumbrado. Se anima al vecindario a sumarse y formar parte de uno de los momentos más singulares y emotivos de la conmemoración, contribuyendo con sus velas a iluminar la calle 31 de Agosto.

Con la calle iluminada por las velas comenzará el Paseo Ceremonial a la luz de las antorchas.

Las personas participantes permanecerán inicialmente en el interior de la **iglesia de San Vicente**. A las 21:28 horas, coincidiendo con el repique de campanas, saldrán al exterior y, a las 21:30 horas, comenzará la ceremonia con la interpretación del Donostiako Antzinako Ereserkia, a cargo de Easo Abesbatza, con la participación del dantzari Aiert Beobide, los portadores de antorchas de Kañoieta y la Banda Municipal de Txistularis.

Cuando se apagan las luces



Kañoieta :: Santa Zezilia Abesbatza

Aldapeko, J. Guridi

Sorgin Dantza, E. Mocoroa

Finalizada su actuación, Santa Zezilia Abesbatza se incorporará al cortejo.

Plaza de la Trinidad :: Gaztelupe otxotea

Ilunabarra

Bitxintxo

Tras su interpretación, Gaztelupe Otxotea se sumará también a la comitiva.

El cortejo continuará hasta el atrio de la Basílica de Santa María, donde se reunirán todos los participantes.

→ Trinitate Plaza → → Santa Maria

Después de más de dos siglos, las campanas, las velas, la música y las palabras vuelven a recordar lo ocurrido aquel 31 de agosto de 1813 y a quienes lo vivieron y padecieron.

Santa Mariako atarian

En el atrio de Santa María

Paseo Zeremoniala Santa Maria Basilikako atarian amaituko da. Bertan elkartuko dira **Easo Abesbatza, Gaztelupe Otxotea, Santa Zezilia Abesbatza eta Udal Txistulari Banda**, Irati Borda prosaz arduratuko dela eta Imanol Artola aurkezle izango dela.

El Paseo Ceremonial culminará en el atrio de la Basílica de Santa María, donde se reunirán **Easo Abesbatza, Gaztelupe Otxotea, Santa Zezilia Abesbatza y la Banda Municipal de Txistularis**, junto a Irati Borda, encargada de la prosa, e Imanol Artola, como presentador.



Emanaldi bateratua **Gure Donosti** piezarekin hasiko da. Ondoren, **Arrats izugarria** erreztatuko da eta **Entraban en las casas** entzungo da; testu horiek gau hartan Donostiako biztanleek bizitakoaren gordintasuna gogorarazten dute.

Egitarauak **Gabiltzan kalez-kale, Haurra lotaratzeko doinua** eta **Donostiako Martxarekin** jarraituko du.

Azkenik, **Agur, jaunak eta andreak!** piezak amaiera emango die Paseo Zeremonialari eta abuztuaren 31ko oroitzapen ekitaldiei.

La actuación conjunta comenzará con **Gure Donosti**. Después llegará el recitado **Arrats izugarria** y **Entraban en las casas**, textos que recuerdan la crudeza de lo vivido por la población de San Sebastián durante aquella noche.

El programa continuará con **Gabiltzan kalez-kale, Haurra lotaratzeko doinua** y la **Marcha de San Sebastián**.

Finalmente, **Agur, jaunak eta andreak!** cerrará el Paseo Ceremonial y los actos conmemorativos del 31 de agosto.



